

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko apirilaren 12tik maiatzaren 9rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/04/16

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 4koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen baita notarioen eta haiek enplegatutako langileen estatuko III. hitzarmen kolektiboa aldatzeko erabakia. **7763 xedapena- 3or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 4koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita aholkularitzako, informazioaren teknologietako eta merkatuaren eta iritzi publikoaren azterketako enpresen estatuko XIX. hitzarmen kolektiboa. **7766 xedapena- 46 or.**

2025/04/25

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2025eko apirilaren 9ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, lehen mailako emakumezkoen futboleko klubetan diharduten futbol-jokalarientzako II. hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duena. **8349 xedapena- 42or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 9koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira hegaztien eta beste animalia batzuen haztegiatarako estatuko hitzarmen kolektiboaren 2024. urterako behin betiko soldata-taulak. **8350 xedapena- 3 or.**

2025/04/30

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 22koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita eraikuntza-sektoreko VII. Hitzarmen Kolektibo Orokorra aldatzeko erabakia. **8627 xedapena- 13 or.**

2025/05/09

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 10ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez zuzentzen baitira 2025eko martxoaren 6ko Ebazpeneko akatsak; drogeria- eta lurrindegi-produktuen txikizkako merkataritzako 2025eko hitzarmen kolektiboko soldatak berraztertzeko akta erregistratzen eta argitaratzen du ebazpen horrek. **9129 xedapena- 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/04/12

- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuak emana, martxoaren 18ko 2/2025 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko akordioa argitaratzeko agintzen duena, zeinaren bidez onesten baitira haurren eta nerabeen interes gorenaren bermatzeko premiazko neurriak ezohiko migrazio-gertakarien aurrean. 7435 xedapena- 1 or.
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuak emana, apirilaren 1eko 3/2025 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko Akordioa argitaratzeko agintzen duena. Haren bidez, 2025erako mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programa (MOVES III) ezartzen da. 7436 xedapena- 1 or.
- **INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA. Metrologia.** 249/2025 Errege Dekretua, martxoaren 25ekoa, Metrologiari buruzko abenduaren 22ko 32/2014 Legea garatzen duen ekainaren 3ko 244/2016 Errege Dekretua aldatzen duena. 7438 xedapena- 16 or.
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Kutsadura atmosferikoa.** 214/2025 Errege Dekretua, martxoaren 18koa, karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzen duena eta karbono-aztarna kalkulatzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko planak lantzeko eta argitaratzeko betebeharra ezartzen duena. 7439 xedapena- 16 or.

2025/04/16

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Elikagaien segurtasuna.** 315/2025 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, elikagaien segurtasunari eta nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legea garatzeko arauak ezartzen dituena, ikastetxeetan elikadura osasungarria eta jasangarria bultzatzeko. 7659 xedaoeba- 10 or.
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Pentsioak.** 316/2025 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, 2025eko ekitaldirako pentsio publikoen hasierako zenbatekoa mugatzeari eta Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen, klase pasiboen pentsioen eta beste gizarte-prestazio publiko batzuen balio-handitzeari buruzkoa. 7660 xedapena- 28 or.

2025/04/21

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2025ko apirilaren 9koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren langileen altako eta bajako prozedura jakin batzuen inguruko ebazpenak elektronikoki eta modu automatizatuan izapidetuko direla zehazten duena. **8102 xedapena- 3 or.**

2025/04/22

- **OSASUN MINISTERIOA. Substantzia eta produktu psikotropikoak.** SND/380/2025 Agindua, apirilaren 14koa, substantzia berriak sartzen dituen substantzia eta prestakin medizinal psikotropikoak eta haien fabrikazioaren, banaketaren, preskripzioaren eta ematearen fiskalizazioa eta ikuskapena arautzen dituen urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren 1. eranskinean. **8109 xedapena- 4 or.**

2025/04/23

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Abeltzaintzako ustiategiak 344/2025 Errege Dekretua, apirilaren 22koa, araudi hauek aldatzen dituen ustiategiaren titularraren zaintza-betebeharrei dagokienez: 306/2020 Errege Dekretua, otsailaren 11koa; 637/2021 Errege Dekretua, uztailaren 27koa; eta 1053/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa. **8158 xedapena- 7 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** 346/2025 Errege Dekretua, apirilaren 22koa, animalia-osasunari buruzko Europar Batasuneko araudia garatzeko oinarriak ezartzen dituen ustiategiaren titularraren zaintza-betebeharrei dagokienez **8160 xedapena- 24 or.**

2025/04/29

- **BARNE MINISTERIOA. Interes nazionaleko larrialdia.** INT/399/2025 Agindua, apirilaren 28koa, autonomia-erkidego batzuetan interes nazionaleko larrialdia deklaratzeko duena 2025eko apirilaren 28an hornidura elektrikoan izandako etenaren ondorioz. **8486 xedapena-2 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Interes nazionaleko larrialdia.** INT/400/2025 Agindua, apirilaren 28koa, apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduaren bidez aitortutako interes nazionaleko larrialdiaren aitortpenaren eremua zabaltzen duena; apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduak autonomia-erkidego batzuetan interes nazionaleko larrialdia deklaratzeko du 2025eko apirilaren 28an hornidura elektrikoan izandako etenaren ondorioz. **8487 xedapena- 1or.**

2025/04/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Langileen estatutua. Gizarte Segurantzza.** 2/2025 Legea, apirilaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baitira urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, langileen ezintasun iraunkorragatik lan-kontratua azkentzeari dagokionez, eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, ezintasun iraunkorrari dagokionez. **8567 xedapena- 8 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Euskal Autonomia Erkidegoa. Kontzertu Ekonomikoa.** 3/2025 Legea, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena. **8568 xedapena- 19 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.** HAC/408/2025 Agindua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baitira, 2024ko zergaldirako, errendimendu garbiaren indizeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoan aplika daitezkeenak, ohiz kanpoko zenbait egoerak eragindako nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako. **8570 xedapena- 141 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Interes nazionaleko larrialdia.** INT/409/2025 Agindua, apirilaren 29koa, apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduaren ondorioak amaiarazten dituen autonomia-erkidego hauetan: Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Galizia, Errioxa, Murtzia eta Valentziako Erkidegoa; apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduak interes nazionaleko larrialdia deklaratzeko du 2025eko apirilaren 28an hornidura elektrikoan izandako etenaren ondorioz. **8571 xedapena- 2 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Petrolioaren sektorea.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 29koa, Energiaren Estatu Idazkaritzarena, Ministro Kontseiluaren 2025eko apirilaren 29ko Akordioa argitaratzen duena, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira hornidura bermatzeko eta petrolio-produktuen gutxieneko segurtasun-izakinak libratzeko (behartutako subjektuenak eta Petrolio Produktuen Erreserba Estrategikoen Korporazioarenak). **8572 xedapena- 3 or.**

2025/05/01

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Erregistro Zibila.** 2025eko apirilaren 28ko Instrukzioa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, ordezkatzeko bidezko gestazioaren ondoriozko jaiotzen filiazioaren erregistro-araubidea eguneratzeari buruzkoa. **8647 xedapena- 3 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Interes nazionaleko larrialdia.** INT/411/2025 Agindua, apirilaren 30ekoa, apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduaren ondorioak amaiarazten dituen autonomia-erkidego hauetan: Extremadura eta Madril; apirilaren 28ko INT/399/2025 Aginduak autonomia-erkidego batzuetan interes nazionaleko larrialdia deklaratzeko du 2025eko apirilaren 28an hornidura elektrikoan izandako etenaren ondorioz. **8648 xedapena- 1 or.**

2025/05/02

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira *contact center* sektorearen esparru nazionalako III. hitzarmen kolektiboaren 2025. urterako soldata-taulen onarpena eta eguneraketa. 8781 xedapena-3 or.

2025/05/07

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** ISM/444/2025 Agindua, desgaitasuna sortzen duten patologia berriak abenduaren 4ko 1851/2009 Errege Dekretuaren eranskinean sartzeko prozedura arautzen duena; errege-dekretu horrek garatzen du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) testu bategina, ehuneko 45eko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen erretiro aurreratuari dagokionez. 8980 xedapena- 6 or.

2025/05/08

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Segurtasun nazionala.** PJC/448/2025 Agindua, maiatzaren 6koa, Ministro Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 6ko Akordioa argitaratzen duena, zeinaren bidez onesten baitira Zibersegurtasunaren Plan Nazionalan jasotako jarduketak osatzen dituztenak. 9088 xedapena- 5 or.

2025/05/09

- **TRANSFORMAZIO DIGITALERAKO ETA FUNTZIO PUBLIKORAKO MINISTERIOA Lurreko telebista digitala.** Martxoaren 25eko 250/2025 Errege Dekretuko akatsen zuzenketa; errege-dekretu horrek Lurreko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala onesten du eta lurreko telebista digitalaren bilakaera teknologikoa bultzatzeko neurri jakin batzuk arautzen ditu. 9102 xedapena- 1 or

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2025/04/16

- **LEHENDAKARITZA.** HUTS-ZUZENKETA, Legegintzako Dekretu honena: 1/2025 Legegintzako Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa. 1691 xedapena- 3or.

2025/04/25

- **EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA** 82/2025 DEKRETUA, apirilaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2026. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. 1782 xedapena- 2 or.

2025/04/30

- **LEHENDAKARITZA.** HUTS-ZUZENKETA, honako Legegintzako Dekretu honen huts-zuzenketarena: 1/2025 Legegintzako Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa. 1837 xedapena- 1or.

mutuaLEX

338 zk. / 2025 urtea

2025/05/06

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2025 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, eta Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea. **1890 xedapena- 6 or.**

2025/05/07

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** 89/2025 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskadiko Merkatarik Elkarteen Errolda arautzen duena. **1910 xedapena- 7 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/04/22

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2/2025 FORU ARAUA, apirilaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena. **I-441- xedapena- 63 or.**
- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 3/2025 FORU ARAUA, apirilaren 9koa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2024ko azaroaren 13an hartutako Lehen Erabakia, Itunaren Batzorde Mistoak 2024ko abenduaren 23an hartutako Lehen Erabakia eta Itunaren Batzorde Mistoak 2025eko otsailaren 6an hartutako Erabaki Bakarra berresteari buruzkoa. **I-442- xedapena- 17 or.**

2025/04/29

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILAO.** 1/2025 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 16koa, zeinaren bidez tributuen arloko zenbait neurri egokitzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergan. **I-486- xedapena- 5 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

22.

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 1/2025 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, eta Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea. **03007 xedapena- 6or.**

2025/04/25

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 165/2025 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baita 123/2024 Foru Agindua, martxoaren 20koa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean Errenta, Ondarea, edota Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zergaren urteko aitortpenak aurkezteko berariazko ordezkartza onartzen duena. **3142 xedapena- 2 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):



338 zk. / 2025 urtea

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO